**AMOREBIETA-ETXANOKO AUZOTAXI ZERBITZUA ERABILTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2026KO DEIALDIA, DIRULAGUNTZA HORI EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA BERRIA ONARTU ONDOREN.**

Udalbatzak 2025eko apirilaren 30ean egindako ohiko Osoko Bilkuran Amorebieta-Etxanon auzotaxi zerbitzua erabiltzeko diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza berria behin betiko onartzea erabaki zuen. Testua 2026ko ekainaren 26ko 120. zk.dun BAOean argitaratu zen. Ordenantza hau 2026ko uztailaren 20an jarriko da indarrean.

***Lehenengoa.*** ***<u>Diru-laguntzaren xedea</u>***

Deialdi honen xedea da Auzotaxi zerbitzuaren erabileraren bidez horrela eskatzen duten Amorebieta-Etxanoko herritarren joan-etorri gastuak diruz laguntzeko aukera ematea, 4412-48000 partidaren kontura.

***Bigarrena.*** ***<u>Baldintza orokorrak</u>***

**1. Onuradunak**

-Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta beren ibilgailurik ez badute eta honako egoera hauetakoren batean badaude:

a) Erroldatuta dauden bizilekua ordenantza honen I. eranskineko planoan adierazitako eremu geografikotik kanpo egotea.

b) I. eranskineko planoan adierazitako eremu geografikoaren barruan erroldatuta egonik, ezkontidea, izatezko bikotekidea edo bigarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senidea Amorebieta- Etxanon erroldatuta egotea eta ordenantza honen I. eranskineko planoan adierazitako eremu geografikotik kanpo kokatuta dauden udalerriko egoitzetako batean sartuta egotea.

**CONVOCATORIA 2026 PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL USO DEL SERVICIO AUZOTAXI EN AMOREBIETA-ETXANO TRAS LA APROBACIÓN DE UNA NUEVA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE ESTA SUBVENCIÓN.**

La Corporación en Sesión Plenaria Ordinaria celebrada el día 30 de abril de 2025 acordó aprobar definitivamente una nueva Ordenanza Municipal Reguladora para la concesión de subvenciones para el uso del servicio Auzotaxi en Amorebieta.Etxano, publicándose el texto en el B.O.B. nº 120, de fecha 26 de junio de 2026. Esta Ordenanza entra en vigor el 20 de julio de 2026.

***Primera.*** ***<u>Objeto de la subvención</u>***

Es objeto de la presente convocatoria el acceso a las ayudas económicas con cargo a la partida 4412-48000 para subvencionar los gastos de desplazamiento de los vecinos de Amorebieta-Etxano que así lo soliciten mediante el uso del servicio de Auzotaxi.

***Segundo.*** ***<u>Requisitos generales</u>***

**1. Personas beneficiarias.**

-Podrán solicitar la subvención aquellas personas empadronadas en el municipio de Amorebieta-Etxano que sean mayores de 16 años y no dispongan de vehículo propio, que se encuentren en alguna de las situaciones que se indican a continuación:

a) Que el domicilio en el que se encuentran empadronas esté ubicado fuera del ámbito geográfico señalado en el plano del Anexo I de esta ordenanza.

b) Que estando empadronadas dentro del ámbito geográfico señalado en el plano del Anexo I tengan a su cónyuge, pareja de hecho o familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad empadronado/a en Amorebieta-Etxano e ingresado/a en alguna de las residencias del municipio que se encuentran ubicadas fuera del ámbito geográfico señalado en el plano del Anexo I de

**AINHOA SALTERAIN GANDARIAS (1, guztira 1)**
Alkatea
Sinaduraren data: 28/07/2026
HASH: 646e0384721ed485dd7f11dd26911105

Balioztatze Kod.: [illegible]YT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 13

-16 eta 18 urte bitarteko pertsonen kasuan, legez emantzipatuta ez badaude, guraso-agintea, tutoretza edo kuradoretza duenaren baimena dutela egiaztatu beharko dute, dirulaguntza eskatzeko eta auzotaxi-zerbitzua erabiltzeko.

-Era berean, udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izan beharko dituzte eskaria egiterakoan eta baita diru-laguntza eskuratzen den bitartean.

-Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. art.ak ezarritakoak betetzen dituztenak ezin izango dira onuradun izan.

-Udalaren erregistroetan dagoen informazioaren gainean ez da dokumenturik aurkeztu behar.

-Diru-laguntza ematen den epean aldaketarik egongo balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio.

**2. Diruz lagundu daitekeen epea**

Aldia 2026ko abuztuaren 20tik abenduaren 31ra artekoa izango da, biak barne.

**3. Joan-etorrien baldintzak eta auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak**

-Zerbitzua urteko egun guztietan emango da, astelehenetik igandera, eguneko 24 orduetan.

-Bidaiak erreserbatzeko taxien telefonogunera deitu daiteke edota zuzenean taxilariekin harremanetan jar daiteke.

-Zerbitzua erabiltzaileak eskatu beharko du bezperako arratsaldeko zazpiak (19:00) baino lehen. Aldez aurretik abisatu gabe ere zerbitzua eska daiteke baina kasu honetan, adjudikaziodunak ahal izan behar du. Ondorioz, aldez aurretik abisatu gabe zerbitzua eskatzen denean, ezin da zerbitzu hori bermatu.

esta ordenanza.

- En el caso de personas con edad comprendida entre los 16 y los 18 años, que no se encuentren emancipadas legalmente deberán acreditar que disponen de la correspondiente autorización de quien ejerza la patria potestad, tutela o curatela para solicitar la subvención y hacer uso del servicio de Auzotaxi.

-Asímismo, deberán estar al corriente de las obligaciones municipales, fiscales y frente a la Seguridad Social en el momento de la solicitud y mientras se percibe la ayuda.

-No pueden ser beneficiarios aquellos que incurran en alguno de los supuestos así establecidos por el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

-No será necesario justificar documentación en aquellos extremos que ya obren en los archivos municipales.

-Cualquier modificación que se produzca durante el periodo de concesión de la ayuda deberá notificarse al Ayuntamiento.

**2. Periodo subvencionable.**

El periodo comprenderá del 20 de agosto al 31 de diciembre de 2026, ambos incluidos.

**3. Requisitos de los desplazamientos y normas de utilización del servicio de Auzotaxi:**

-El servicio se prestará todos los días del año de lunes a domingo durante las 24 horas del día.

-Los viajes deben reservarse llamando a la centralita de taxis (94 673 11 77) o poniéndose en contacto con los propios taxistas.

-El servicio deberá solicitarse por el usuario antes de las 19 horas del día anterior a su utilización. No obstante, lo anterior, podrán solicitarse servicios sin antelación, si bien en este caso la prestación quedará condicionada a que el adjudicatario tuviera disponibilidad, sin que quede garantizada en ningún caso la atención de los servicios solicitados con este

Baliozkotze kod.: SNFGJPT3EMGG5RYTZ3EW4
Egiaztatzeko: https://edalaamorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataforman elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 13

-Eremu berdineko erabiltzaile bat baino gehiagok zerbitzua eskatzen dutenean, ibilgailua partekatu ahal izango da. Partekatzeari dagokionez, ibilgailuak baimenduta dituen jesarleku kopurua izango da muga. Ibilgailuaren jesarleku guztiak bete beharko dira ibilbide eta ordutegi bera duten zerbitzuak eskatzen direnean.

-Zerbitzua zolatuta dauden bideetan eskainiko da.

-Auzotaxi-zerbitzua erabili ahal izateko, onuradunak bere burua identifikatu beharko du bere erabiltzaile-txartela erakutsiz, eta taxilariari bonu bat eman beharko dio. Taxilariak bonu hori jasoko du, gero udalean entregatu eta udalak ordain dezan.

-Erabiltzaile bakoitzak egunean bi bidaia izango ditu gehienez. Joan-etorria bi bidaia edo lekualdaketa bezala ulertzen da.

**4. Ondokoak dira onuradunen betebeharrak:**

-Joan-etorrien baldintzak eta auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak bete.

-Udalak egin beharreko egiaztapenak ahalbideratu eta eskatzen den informazio guztia eman.

***Hirugarrena.*** ***Diru-laguntzak ematea***

Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura ondokoa izango da: Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileei zuzenean ematea.

Joan-etorri bakoitzaren zenbatekoa 16 eurokoa izango da eta Udalak diruz lagunduko duen zenbatekoa ondokoa izango da:

- 12 € joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 0-50 artekoa denean.
- 9 € joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 51-100 artekoa denean.
- 7 € joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 101-310 artekoa denean.

plazo de preaviso.

-Cuando se demande el servicio por más de un usuario en el mismo ámbito, se permitirá el uso compartido del vehículo. El uso compartido tendrá como límite el máximo de plazas autorizadas en el vehículo. Será obligatorio completar el número de plazas del vehículo cuando exista demanda suficiente en trayectos y horarios coincidentes.

-El servicio se prestará en caminos que se encuentren pavimentados.

-Para poder utilizar el servicio de Auzotaxi la persona beneficiaria deberá identificarse mostrando su tarjeta de persona usuaria, así como entregar al taxista un bono, quien los recogerá para su posterior entrega en el Ayuntamiento y abono por parte del Ayuntamiento.

-Cada persona usuaria tendrá un límite de dos viajes al día. La ida y la vuelta se entienden como dos viajes o traslados.

**4. Son obligaciones de las personas beneficiarias:**

-Cumplir con los requisitos de desplazamientos y normas de utilización del servicio de Auzotaxi.

-Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento y facilitar cuanta información les sea requerida.

***Tercera.*** ***Concesión de subvenciones***

El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones, será de concesión directa a los vecinos usuarios del Auzotaxi.

El importe de cada trayecto se establece en 16 € y el importe subvencionado por el Ayuntamiento será de:

- 12 € por cada trayecto, para los trayectos comprendidos entre 0-50.
- 9 € por cada trayecto, para los trayectos comprendidos entre 51-100.
- 7 € por cada trayecto, para los trayectos

Baliozkotze Kodea: 6NFEGJQPT5SEMGG5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataforman elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 13

| | |
|---|---|
| Gehienez ere erabiltzaile bakoitzak urtean 310 joan-etorri egin ditzake. | comprendidos entre 101-310.<br><br>El límite máximo es de 310 trayectos al año por usuario. |
| ***Laugarrena.-*** ***<u>Eskariak aurkezteko epea eta lekua</u>*** | ***Cuarta.*** ***<u>Plazo y lugar de presentación de solicitudes</u>*** |
| 1.Eskabideak Amorebieta-Etxanoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulegoan aurkeztu ahal izango dira, erregistro elektronikoaren bidez edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein tokitan, horretarako araututako eredua erabiliz.<br><br>Deialdi bakoitzean eskatzen zaizkion agiri osagarriak erantsi beharko ditu.<br><br>Agiri ofiziala eskatzaileak sinatu beharko du. | 1.Las solicitudes podrán presentarse en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, a través del registro electrónico o en cualquiera de los lugares indicados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, utilizando el modelo normalizado al efecto.<br>Se adjuntará la documentación complementaria que le sea requerida en cada convocatoria.<br><br>El impreso oficial, estará firmado por la persona solicitante. |
| 2.Diru-laguntza eskuratzeko eskaria aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta modu formalean onartzea dakar. | 2. La presentación de solicitudes para optar a estas subvenciones comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en las presentes Bases. |
| 3.Eskariak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 30ra arte izango da. | 3. El plazo de presentación de solicitudes será hasta el 30 de diciembre de 2026. |
| 4. Udalak ofizioz aitortuko du onuradun-izaera azaroaren 25eko 2913/2025 Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartutako 2026rako dirulaguntza-deialdian parte hartu duen eta deialdi horren babesean onuradun-izaera aitortua duen pertsona. | 4.El Ayuntamiento reconocerá de oficio la condición de persona beneficiaria a aquella persona que habiendo concurrido a la convocatoria de subvención para el año 2026 aprobada mediante Decreto de Alcaldía nº2913/2025, de 25 de noviembre tuviera reconocida la condición de beneficiaria al amparo de la referida convocatoria. |
| 5.Eskariarekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:<br><br>-Deialdi honi erantsitako eskabide eredua beteta.<br><br>-Eskatzailaren Nan aren edo AIZren kopia, hala badagokio, haren izenean jardun denarena (aurretiaz aurkeztu ez badu).<br><br>-Eskatzaileak 16 eta 18 urte bitartean baditu, legez emantzipatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko du, edo dirulaguntza eskatzeko eta auzotaxi-zerbitzua erabiltzeko baimena, guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duenak sinatuta. | 5.La documentación que acompañarán a la solicitud es la siguiente:<br><br>-La solicitud cumplimentada y ajustada al modelo que acompaña a la presente convocatoria.<br><br>-Copia del DNI o NIE de la persona solicitante y en su caso, de la representación de quien actúa en su nombre (si no lo ha presentado anteriormente).<br><br>-En caso de que la persona solicitante tenga una edad comprendida entre los 16 y los 18 años deberá presentar, el documento que acredite que se encuentra emancipado legalmente o la autorización para solicitar |

Baliozkotzeko kodea: [illegible]6NFEGJQPT5SEMGS5RRYT29W4
Egiaztapena: https://e[illegible]dala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 13

-Ordenantza honen I. eranskineko planoan adierazitako eremu geografikoaren barruan erroldatuta dauden eta I. eranskineko planoan adierazitako eremu geografikotik kanpo dauden udalerriko egoitzetara joateko dirulaguntza eskatzen duten eskatzaileek senidea, izatezko bikotea edo senidea ospitaleratu izana egiaztatu beharko dute, dagokion sarrera-ziurtagiria aurkeztuta.

-Aitorpen arduratsua aipatuz udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela. (Eskaera ereduan).

-Aitorpen arduratsua esanez eskatzaileak deialdiak jarritako baldintzak betetzen dituela. (Eskaera ereduan).

-Aitorpen arduratsua aipatuz ez duela Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. art.ak jartzen dituen galarazpen arrazoirik. (Eskaera ereduan).

-Bestelako agiri osagarriak ere eskatu ahal izango dira.

6.Prozedura hasteko eskabideak ez baditu betetzen adierazitako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko. Interesdunak zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

7.Jakinarazpenetarako, Udalak eskarian agertzen den helbidea erabiliko du. Eskatzaileari dagokio egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea, batez ere eskatzailearen helbideari dagokionean.

8.Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta eskatzaileak dirulaguntza honen onuradun izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, alta emango zaio

la subvención y el uso del servicio de Auzotaxi firmada por quien ostente la patria potestad, tutela o curatela.

-En el caso de aquellas personas solicitantes empadronadas dentro del ámbito geográfico señalado en el plano del Anexo I de esta ordenanza que soliciten la subvención para trasladarse a las residencias del municipio ubicadas fuera del ámbito geográfico señalado en el plano del Anexo I deberán acreditar el ingreso del conyugue, pareja de hecho o familiar mediante la presentación del correspondiente certificado de ingreso.

-Declaración responsable de encontrarse al corriente de las obligaciones municipales, fiscales y frente a la Seguridad Social. (En modelo de solicitud).

-Declaración responsable en la que se haga constar que el solicitante cumple los requisitos exigidos por la presente convocatoria. (En modelo de solicitud).

-Declaración responsable en la que se haga constar que el solicitante no se halla incurso en ninguna de las causas de prohibición enumerada en el artículo 10 de la Ordenanza General de Subvenciones. (En modelo de solicitud).

-Podrá exigirse otra documentación complementaria.

6.En el caso de que la solicitud de iniciación no reúna los requisitos señalados, se requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos necesarios. Si la persona interesada no procediese a la subsanación se le tendrá por desistida de su petición.

7.A efecto de notificaciones, el Ayuntamiento hará uso del domicilio que figure en la solicitud. Será cometido de la persona solicitante informar expresamente al Ayuntamiento de cualquier variación de datos que haya podido haber, especialmente en lo referente al domicilio del solicitante.

Baliozkotze Kod.: 6[illegible]FEQQP[illegible]5SEMG[illegible]5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://[illegible]-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orria, guztira 13

Auzotaxiaren Erabiltzaileen Erregistroan, eta auzotaxi-txartela emango zaio.

Txartel hori bakoitzarena eta besterezina izango da eta, edozein kasutan, taxi zerbitzua erabiltzeko akreditazio gisa erabiliko da.

***Bosgarrena.*** ***<u>Ebazpena eta diru-laguntzak ordaintzea</u>***

Diru-laguntza hau gauzatuko da auzotaxiaren erabiltzaileei diru-laguntza emanez beraien joan-etorri pertsonaletarako. Hau kudeatzeko taxilariekin hitzarmen bat egingo da. Horretarako, ondorengo **<u>erabiltzeko arau orokorrak</u>** ezartzen dira:

1. Erabiltzailea auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan izena emanda egon behar da eta auzotaxi txartela eskuratu. Izen emate hori eskaria onartu ondoren egingo da eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Izen-ematea urtero berriztatu beharko da, eskari-orria betez.

2. Taxi zerbitzua gauzatzerakoan, erabiltzaileak bere erabiltzaile txartela erakutsiko du identifikatzeko eta taxilariari bonu bat emango dio (aldez aurretik Udaletxean eskuratuko duena) egiten duen bidaia bakoitzeko.
3. Erabiltzaileak bonuak udaletxean eskuratuko ditu. Bonu bakoitza 10 bidaiarako izango da. Kostua ondokoa izango da:

- Joan-etorri kopurua 0-50 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 40 euroko bonua.
- Joan-etorri kopurua 51-100 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 70 euroko bonua.
- Joan-etorri kopurua 101-310 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 90 euroko bonua.

4. Gehienez ere erabiltzaile bakoitzak urteko 310 joan-etorritarako bonuak eskuratu ahal izango ditu.

Erabiltzaile bakoitzak ezin izango du aldi berean bono bat baino gehiago eskuratu eta azkeneko bonoa erosi zuenetik hurrengoa erosi arte gutxienez astebete igaro beharko da.

8.Analizada la documentación presentada y comprobado que la persona solicitante cumple los requisitos para ser beneficiaria de la presente subvención se procederá al alta en el Registro de personas usuarias de Auzotaxi, y se expedirá la tarjeta de Auzotaxi.

Dicha tarjeta es personal e intransferible y deberá presentarse, en todo caso, como acreditación para utilizar el servicio de taxi.

***Quinta.*** ***<u>Resolución y pago de ayudas</u>***

Esta subvención se concreta en la concesión de una ayuda económica a los usuarios de Auzotaxi, para sus desplazamientos personales y su gestión se realizará mediante Convenio con los taxistas. Para ello se establecen las siguientes **<u>normas generales de utilización</u>**:

1. El usuario deberá estar inscrito en el Registro de usuarios de Auzotaxi y disponer de la tarjeta Auzotaxi. Dicha inscripción se realiza una vez aceptada la solicitud y verificado el cumplimiento de los requisitos. La inscripción deberá renovarse anualmente rellenando el impreso de solicitud.

2. Al realizar el servicio de taxi, la persona usuaria se identificará con su tarjeta de usuario y entregará al taxista un bono (que previamente adquirirá en el Ayuntamiento), por cada trayecto realizado.

3. Los bonos serán adquiridos por el usuario en el Ayuntamiento, en forma de Bonos de 10 trayectos, con un coste de:

- Bono de 10 trayectos para realizar los trayectos comprendidos entre 0-50: 40 €/Bono
- Bono de 10 trayectos para realizar los trayectos comprendidos entre 51-100: 70 €/Bono
- Bono de 10 trayectos para realizar los trayectos comprendidos entre 101-310: 90 €/Bono

4. Cada usuario podrá adquirir bonos correspondientes a 310 trayectos al año como máximo.

Cada usuario no podrá adquirir más de un bono al

Baliozkotze Kod.: 6NEGJQPT5SEMG5RRYT2EW4
Egiaztapena: https://egoitza.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 13

Taloitegi bakoitza erostean onuradunak ordaindu beharko duen zenbatekoa egindako bidaia-kopuruaren arabera zehaztuko da.

2026ko aurreko deialdian onuradun izan zirenek zenbateko berrien arabera eskuratu ahal izango dituzte bonuak. 2026an aurretik eskuratutako bonuen kopurua kontuan hartuko da 2026an eskura daitezkeen bonu guztiak eta bidaia-tartearen arabera diruz lagundu beharreko zenbatekoa zehazteko.

Udalak bonuen salmentaren kontrola ezarriko du, bai muga pertsonalak aplikatzeari dagokionez, bai aurrekontu-kreditua agortu dela ohartarazteko. Azken kasu horretan, bonuen salmenta geldiarazita geratuko da, eta, beraz, baita etendako dirulaguntzen eraginkortasuna ere, baina horrek ez du esan nahi kreditua handitzen bada salmentei berriro ekin ezin zaienik.

5.Udalak joan-etorriari dagokion zenbatekoa ordainduko dio zerbitzua eman duen taxilariari, Udalak eta taxilariak sinatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera. Zenbateko hori bat dator erabiltzaileari ematen zaion dirulaguntzarekin (taxilariari ordaintzen zaio endosatzaile gisa) eta onuradunak Udalari bonu gisa ordaintzen dion zenbatekoarekin.

6.Bono-taxiak bakoitzarenak eta besterezinak dira. Erabiltzaileak ezin izango du bonorik eskuratu Udalarekin zorrik izanez gero.

7.Bonu bakoitzak bidaia baterako balio du eta taxilariak jasoko du aurkeztu eta ordaindu dakion.

8.Taxilariek erregistroak behar bezala beteta izango dituzte, bonuen egiaztagiriekin, zerbitzuaren data eta ordua adieraziz eta baita erabiltzailea eta helmuga ere.

9. 2026ko abuztuaren 20tik abenduaren 30era bitartean eskuratutako bonuek eskuratze-urteko abenduaren 31ra arte izango dute balioa, eta, erabiltzen ez badira, ezin izango dira itzuli.

mismo tiempo y deberá transcurrir como mínimo el plazo de una semana entre la compra del último bono y el siguiente.

El importe que deberá sufragar la persona beneficiaria en el momento de adquisición de cada talonario se determinará en función del número de viajes realizados.

Aquellas personas que ya tuvieran la condición de beneficiarias en la anterior convocatoria del año 2026 podrán adquirir los bonos de acuerdo con los nuevos importes. El número de bonos adquiridos con anterioridad durante el año 2026 se computará para determinar el total de bonos que puede adquirirse durante el año 2026, así como el importe a subvencionar en función del tramo de viajes que le correspondan.

El Ayuntamiento establecerá un control de la venta de bonos, tanto en orden a la aplicación de los límites personales, como en orden a advertir posibles agotamientos del crédito presupuestario. En este último supuesto, la venta de bonos quedará paralizada y, por tanto, la efectividad de las subvenciones interrumpida, todo ello sin perjuicio de una posible reanudación de las ventas en caso de ampliación del crédito.

5.El Ayuntamiento abonará al taxista que haya prestado el servicio el importe correspondiente al trayecto, de conformidad con lo establecido en el Convenio suscrito entre el Ayuntamiento y el taxista. Esa cantidad se corresponde con la subvención que se concede al usuario (la cual se abona al taxista en calidad de endosatario) y con el importe abonado al Ayuntamiento por el beneficiario en concepto de bono.

6.Los Bono-taxi son de uso personal e intransferible. El usuario no podrá adquirir ningún bono en caso de que tenga alguna deuda municipal.

7.Cada Bono tiene un valor de un viaje o trayecto y será recogido por el taxista para su presentación y correspondiente abono.

8.Los taxistas mantendrán los registros debidamente cumplimentados con los justificantes de los Bonos, indicando fecha y hora de servicio, usuario y destino.

9.Los bonos adquiridos entre el 20 de agosto y el 30 de

Baliozkotze Kodea: 6NEGJ PT5SEMGG5R KT29EW4
Egiaztapena: https://egoitza.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 13

10. Alkatetzaren azaroaren 25eko 2913/2025 Dekretuaren bidez onartutako dirulaguntza-deialdiaren babesean erositako bonuak ondoriorik gabe geratuko dira 2026ko abuztuaren 20tik aurrera.

Data horretarako bonu horiek erabili ez dituzten pertsonek Udaleko Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuan trukatu ahal izango dituzte. Bulego horrek aurkezten zaien bono-kopuru bera emango die, eta erabiltzaileak zenbateko berriak aplikatuta ordaindu beharko du prezio-aldea.

Ordaindu beharreko aldeak honako hauek izango dira, emandako bonu motaren arabera:

- 0-50: 2 €arteko ibilbideak egiteko bonu bakoitzeko ordaindu beharreko aldea: 2 €
- 51-100 bitarteko ibilbideak egiteko bonu bakoitzeko ordaindu beharreko aldea: 1 €bonu bakoitzeko
- 101-150 euro bitarteko ibilbideak egiteko bonu bakoitzeko ordaindu beharreko aldea: 1 euro bonu bakoitzeko

***Seigarrena.*** ***<u>Kontsignazioa</u>***

1)Deialdiko dirulaguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko osoa 60.000 euroko aldea izango da, partidan aurreikusitako zenbatekoa eta Alkatetzaren azaroaren 25eko 2913/2025 Dekretuaren bidez onartutako deialdian diruz lagundutako zenbatekoa. 4412-48000 aurrekontu-partidari egozten zaio.

2) Aurrekontuaren ekitaldiaren barruan emandako laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aipatu kontsignazioa edota aurrekontu aldaketak onartuko balira, eguneratzearen ondorioz egin dena.

3)Laguntzak 10 joan-etorrirako bonua erosterakoan emango dira. Diru-laguntza eman arren, taxilariak gero justifikatu egin beharko du eta 2. puntuan adierazitako aurrekontu mugak kontuan izango dira.

diciembre de 2026, tendrán validez hasta el 31 de diciembre del año de adquisición, de no utilizarse no cabe la posibilidad de devolución de los mismos.

10.Los bonos adquiridos al amparo de la Convocatoria de Subvención aprobada mediante Decreto de Alcaldía nº nº2913/2025, de 25 de noviembre quedarán sin efecto a partir del 20 de agosto de 2026.

Aquellas personas que para esa fecha no hayan usado estos bonos podrán canjearlos en la Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento, que les entregará el mismo número de bonos que presenten, teniendo que abonar la persona usuaria la diferencia de precio aplicando los nuevos importes.

Las diferencias a abonar serán las siguientes, dependiendo del tipo de bono entregado:

- Diferencia a pagar por cada bono para realizar los trayectos comprendidos entre 0-50: **2 € por bono**
- Diferencia a pagar por cada bono para realizar los trayectos comprendidos entre 51-100: **1 € por bono**
- Diferencia a pagar por cada bono para realizar los trayectos comprendidos entre 101-150: **1 € por bono**

***Sexta.*** ***<u>Consignación</u>***

1) La cuantía total máxima destinada a las subvenciones convocadas será la diferencia de 60.000 €, cantidad inicial prevista en la partida y el importe ya subvencionado en la convocatoria aprobada mediante Decreto de Alcaldía nº nº2913/2025, de 25 de noviembre. La partida presupuestaria a la que se imputa es la 4412-48000.

2) El volumen total de las ayudas concedidas dentro del ejercicio presupuestario, no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueban modificaciones presupuestarias.

3) Las ayudas se concederán en el momento de la

Baliozkotze Kod.: 6NFEJQT5SEMG55RRYT29EW
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 13

***Zazpigarrena.*** ***<u>Beste laguntza batzuekin ematea</u>***

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza xede bera duten beste Administrazio Publiko batzuen laguntzekin bateragarria izango da, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

***Zortzigarrena.*** ***<u>Itzultzea</u>***

Erakunde onuradunak oinarri hauetan ezarritako ezein baldintza zein aplika daitekeen gainontzeko araudia beteko ez balu, diru-laguntza eskuratzeko eskubidea guztiz edo zati batean galtzea ekarriko luke eta osorik edo zati batean dagozkion berandutza interesak itzultzeko betebeharra izango luke. Erabakia diru-laguntzak emateko organo eskudunari dagokio.

***Bederatzigarrena.*** ***<u>Araubide juridikoa</u>***

Diru-laguntzak oinarri hauetan ezarritakoaz gain, Amorebieta-Etxanoko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira eta baita azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera.

compra del Bono de 10 trayectos. La concesión estará condicionada a la posterior justificación por el taxista y sujeta a los límites presupuestarios mencionados en el punto 2.

***Séptima.*** ***<u>Concurrencia con otras ayudas.</u>***

La ayuda económica regulada en estas bases será compatible con otras ayudas que para la misma finalidad concedan o puedan establecer cualquiera de las Administraciones Públicas, siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada.

***Octava.*** ***<u>Reintegro</u>***

El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes. La decisión corresponderá al órgano competente para otorgar las subvenciones.

***Novena.*** ***<u>Régimen jurídico</u>***

Las subvenciones se regirán además de por las presentes Bases Reguladoras, por la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, así como la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

Baliozkotze Kod.: 6NFEGJQPT5SEMGG5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 13

| | |
|---|---|
| ***I. ERANSKINA:***<br><br>*Oharra: Mugatuta agertzen den gunean erroldatuta daudenek ezin izango dute zerbitzua erabili.* | ***ANEXO I:***<br><br>*Nota: los empadronados en la zona delimitada no podrán utilizar el servicio* |
| | |



Baliozkotze Kod.: 6NFEGJQPT5SEMGG5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 13

## AUZOTAXI ZERBITZUARENDIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDE ORRIA

E017

IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN DEL AUZOTAXI

**AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA**
PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA

<table>
<tr><td colspan="3">1. abizena / 1.er apellido    2. abizena / 2.º apellido    Izena / Nombre</td><td colspan="2">NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF</td></tr>
<tr><td colspan="5">☐ Interesduna naiz / Soy la persona interesada</td></tr>
<tr><td colspan="5">☐ Honako hau ordezkatzen dut: / Represento a:<br><br>Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ:/DNI-NIE-Pasaporte-NIF del representado/a:</td></tr>
<tr><td colspan="2">JAKINARAZI HEMEN / NOTIFICAR EN    Kalea / Calle</td><td>Zk. / N.º</td><td>Solairua / Piso</td><td>Aldea / Mano</td></tr>
<tr><td>Posta kodea / Código postal</td><td colspan="2">Herria / Municipio</td><td colspan="2">Lurraldea / Provincia</td></tr>
<tr><td>Telefonoa / Teléfono</td><td colspan="2">e-posta / e-mail</td><td colspan="2">Mugikorra / Móvil</td></tr>
</table>

| XEHETASUNAK / DETALLES | | |
|---|---|---|
| **Urtea** / Año | | |
| **Egunean zaude Gizarte Segurantza,Foru-ogasuneta Amorebietako Udalaren ordainetan?** ¿Estas al día en los pagos a la Seguridad Social, la hacienda foral y municipal de Amorebieta-Etxano? | ○ Bai / Sí | ○ Ez / No |
| **Diru-laguntzak jasotzeko nolabaiteko debekurik baduzu?** ¿Tienes alguna prohibición para recibir subvenciones? | ○ Bai / Sí | ○ Ez / No |
| **Auzotaxirako diru-laguntza eskatu nahi duzu?** ¿Solicitas subvención para el Auzotaxi? | ○ Bai / Sí | ○ Ez / No |
| **Dirulaguntza jasotzeko eta auzotaxi-txartela eskuratzeko betebeharrak ezagutzen dituzu?** ¿Conoces las obligaciones de la subvención y los requisitos para adquirir la tarjeta de usuario del Auzotaxi? | ○ Bai / Sí | ○ Ez / No |

**Taxilariarekin ATXIKIMENDU-KONTRATUAN parte hartu nahi dut eta sinadura honekin taxilariarekin atxikimendu-kontratuan parte naizela aitortzen dut.**

Baliozkotze Kod.: 6NFEGJQPT5SEMGG5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 13

**ZINPEAN AITORTZEN DUT, eskabide honetan emandako datu guztiak egia direla.**

**Eskari honetan jasotako datuek aldaketaren bat izango balute, Amorebieta-Etxanoko Udalari hilabeteko epean aldaketaren berri emateko konpromisoa hartzen dut.**

Deseo formar parte en el contrato de adhesión con el taxista y con mi firma declaro que formo parte del mismo.

Declaro bajo juramento que los datos incluidos en esta solicitud son verdaderos.

Me comprometo a comunicar al Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano en el plazo de un mes cualquier variación de los datos que hago constar en la presente solicitud.

**Data** / Fecha **Sinadura** / Firma



amorebieta etxano
UDALA *AYUNTAMIENTO*

## AUZOTAXI ZERBITZUARENDIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDE ORRIA

E017

## IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN DEL AUZOTAXI

| DATU PERTSONALEN BABESA | PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL |
| --- | --- |
| Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onespenaz jasotzen dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren fitxategi egokian sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute AmorebietaEtxanoko Udalan. | Los Datos Personales contenidos en el presente formulario son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al correspondiente fichero del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del Ayuntamiento |

Baliozkotze Kod.: 6NFEGJQPT5SEMGG5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 13

| | |
|---|---|
| | de Amorebieta-Etxano. |



Baliozkotze Kod.: 6NFEGJQPT5SEMGG5RRYT29EW4
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 13